

O. ZENBAKIA

KARAKARA

1987 EKAINA

ORIOKO EUSKAL ALDIZKARIA

100 PZT.



aurkibidea

1 -- AGURRA

4 -- GAI MONOGRAFIKOA:

"KULTUR ECOERA ORION"

- 5. Orioko Udala eta Euskera. E.H.E.
- 8. Orainaldia eta Etorkizuna. Orioko Arraunketa Elk.
- 15. Orioko Herri Ikastolaren idazkia.
- 21. Emakumeok ere hitza badugu. Emakumeen Taldea.
- 24. Orioko Futbol Taldearen Idazkia.
- 25. Gazteekin zer egin? San Juan Elizpe Soziedadea.
- 27. Orioko Herri Batasuna aldizkari honi, Bai! H.B.

29 -- ORIOTARROK DUTE HITZA:

- 30. Traineru denboraldia Orio txapeldun ote?
Manu Etxeberria.
- 32. Erlojua mantsoegi mugitzen da batzutan. Antxiola.
- 34. Aste Santuak zuen zentzu erlijiosoa galdu
egin du. Antxiola.
- 36. Euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak.
Xabi Bergara.
- 37. Astia (Desastre kutxa).



Kaixo oriotar hori !

Eskutan duzun hau euskal aldizkari izan nahi duen baten 0. zenbakia duzu. Aspaldi koa da Orion honelako zerbait sortzeko asmoa eta hau izan daiteke (izango al da-!) horren abiapuntua.

Lehen alea izatera ere iristen ez den 0. zenbaki honetarako gaia monografikoa izan behar zuela iruditu zitzaigun: "euskara-
ren eta kulturaren egoera Orion" zen proposatu genuena; diagnosia egitea zen, beraz, helburua. Honela, bada, gaia erabakia genuela, herriko alderdi politiko, elkarte kultural eta soziedadeengana jo genuen eritzi eske. Ezin esan alderdi politiko eta soziedadeen aldetik idazki asko jaso dugunik (falta direnak jakingo dute zergatik falta diren, gu denegana joan bait ginen); kirol eta kultur elkarteak, berriz, ondo

erantzun dute orokorrean eta jaso ditugu eritzi ezberdinak, nahiz eta badauden hutsune signifikatiboak ere: Talai-Mendi, AEK (eta ez da izango eskatu ez zaiolako), dantza taldea... Hau da nagusiki zenbaki honetan aurkituko duzuna, badago, honezaz gain, zenbait kolaborazio eta bestelakorik ere.

Lerro hauen bitartez ondorengo aleetarako laguntza eskatzen dizugu; alea hezurramitzeko zure eritziak, kritikak, salaketak, entsaioak, ipuinak, olerkiak, marrazkiak, burutzioak, etab. behar ditugu, aldizkaritxo honek, beste ezer baino gehiago, zera izan nahi bait luke, hots, oriotar guztiontzako adierazbidea, eztabaidarako kantxa, eritziak, kontraeritziak, salaketak zein kreazio lanak plazaretzeko bidea; euskaraz, hori bai, gure herri hizkuntzan idatziak izatea izango bait da idazkiak argitara emanteko baldintza bakarra; gainontzean, guztiz irekiak gaude eta guztion aportazioak espero ditugu.

Oraingoz proiektua baizik ez den aldizkari honen jarraipena zure eskuetan dago !!

KARKARA TALDEA



La Kultur Egoeraren Diagnostika

Gai monografiko deitu dugun sail honetarako guren asmoa urriko kultur egoeraren diagnostika bat egitea zen; jakin nahi guren nola ikusten duten herriko elkarte eta alderdi politikoei bertako situazioa kulturari dagokionean.

Era guztietako eritzia jaso ditugu eta jaso bezelaxe ematen ditugu gure jendeak diotenaren adierazgarri diren lakoan.

Ikusiko duguenez orok bere entzunetik heldu dio hariari.

ORIOKO UDALA ETA EUSKARA

1981eko Erroldako datuen arabera (ezinezkoa izan baitzaigu azken erroldakoak eskuratzea), Orion orduan bizi ziren 4.223 pertsonetatik, 3.177k zekien ondo euskaraz (% 75,23), 366 pertsonak, bestalde, aitortzen zuen bazekitela euskaraz hitz egiten baina nekez egiten zutela (% 8,67), euskaraz hitz egiten ez zutenak 680 ziren (% 16,10)

<u>1981eko Errolda</u>		
Euskaraz ondo		
hitz egiten du.....	3.177	(% 75,23)
Euskaraz nekez		
hitz egiten du.....	366	(% 8,67)
Ez daki euskaraz.....	680	(% 16,10)
<u>GUZTIRA.....</u>	<u>4.223</u>	

Datu hauen arabera Orioko euskaldunen kopurua (ondo hitz egiten dutenak eta nekez egiten dutenak) 3.543 pertsonetakoa zen 1981ean, hots, populazioaren % 83,90a.

Pentsa daiteke ordutik hona ez dela herrianeuskaldunen kopuruaren aldetik aldaketa nabarmenik eman eta egoera, gutxigorabehera, berdintsua

e

izango dela gaur egun ere (1986ko Erroldako datuak eskutartean izatea, dena den, oso interesgarria litzateke Orioko euskaldungoaren nondik-norakoaren berri izatekh, ea bost urte horietan gora ala behera egin duen jakitearren).

Hauek dira euskararen ezagutzari buruzko datuak. Ez dago euskararen erabilpenari buruzko daturik, Orio mailan ez bait da inoiz azterketa soziolinguistikorik egin; benetan interesgarria litzateke honelako azterketa bat gure herrian egitea euskara normaltze bidean jartzeko eman beharreko pausuak argitzeko eta zehazteko.

Gauzak horrela, Orio herri euskalduna denik ezin inork uka, baina...ba ote du euskarak herriaren bizitzan izan behar lukeen protagonismo ezinbestekoa?, ematen ote zaio euskarari herriak gertuen duen instituziotik, hots, Udaletik, merezi duen eta legez zor zaion tratua?, Orioko Euskal Herrian Euskaraz taldearentzat garbi dago ezetz. Udalak ez du euskararen normalizazioaren aldeko pauso bakar bat bera ere eman. Barrura begira ez da plantila euskalduntzeko eta alfabetatzeko inolako plangintzarik egin eta, ondorioz, barne-funtzionamendu guztia erderaz egiten segitzen da. Kanpora begira, berriz, Udalaren jesteria euskarari dagokionean are negargarriagoa izan da; hainbat urteren buruan Euskara Batzordea sortu zen, euskararen inguruko gaiez arduratuko omen zena, Batzordea erabat inoperantea suertatu da ez bait zen bildu ere egiten eta, beraz, ez da gure herriaren nortasunaren ardatz nagusia den euskarari buruzko erabakirik hartu azken urteotan.



Euskararekiko axolagabekeria hau gutxi baltz, iraintzat hartzen dugu azken urtetan martxan egon den Kultur Batzordearen burua nor eta erdaldun bat izatea!! (sinestezina badirudi ere halaxe izanda: Orioko herri euskalduneko alderdi politiko aber-tzale eta euskaltzale omen den batek zinegotzi erdal-dun bat eduki digu KulturBatzordearen buru); sobran daude komentarioak.

- Noizko benetan eragile izango den Euskara Batzordea Orioko Udalean ?
- Noizko plantila euskalduntzeko eta alfabetatzeko plangintza serioa ?
- Noizko Orioko euskararen egoera ikertuko duen azterketa soziolinguistikoa ?
- Noiz, azkenik, haintzat hartuko du euskara Orioko Udalak eta noiz jabetuko da dugun kultur-ondare baliotsuena berau dugula ? Noizko Udal euskalduna ?

EUSKARA BENETAN GURE UDALETAN. ! !

ORIOKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ





ORAINALDIA ETA ETORKIZUNA

Oriotar hiraganaldi garrantzitsua atzera utzi on doren, orainaldiarekin aurkitzen gara.

Arraunketa Oriotarrak, zer dauka gaur egun?

1. Gogo, proiektu eta antsi ditun Gida Batzorde berria. Gainera, gure inguruko indibiduo eta kolektiboek, azalduko ditugun arrazoi eta planteamenduei, harria ona etallaguntza emango dielakoaren zai.
2. Hobeagotu behar den itsasadar, hibai ederra.
3. Martxan jarri behar dugun Pabiloi infraerabilia. (Zerbait egin nahian gabiltra).
4. Arraunketaren atal bat, arraunketa olinpikoa, jarleku higikorra, emergentzia egoeran. Ezagutuz, ezagutu genuen bezelaxe, zer kotaraino iritsi zen atal hau, gaur egungo egoera ikusiaz, zero azpitik gaudela esan genezakegu.
5. Kategoria eta maila guztietako arraunlari multzo ilusionatua. Arraunketa egiteko lehenengoz, Elkarte honi, herri honi eta itsasadar, hibai honi, bizi berria emateko prest, bigarrenengoz; eta hirugarren eta azkenik elkarte desberdinetako arraunlariekin batera probako bakua izateko prest, mugaz kanpo eta internazionalki lehialtzeko.

Bigarrenengo puntuari buruz (Itsasadarra, hibaiak) zenbait argitasun eman nahi genituzke:



Gaur egun Euskadin, tostako arraunketa, leku asko tan egin litekeela argi dago erlatiboki.

Baina, arraunketa olinpikoa, jarleku higikorra, kondizio honetan?

Errealistak bagara, oso toki gutxitan, inon ez dela posible, ez esateagatik. Izan gaitetzen egizaleak eta pentsa dezagun izen eta inguru egoki batetan...

ORIO! Noski bai?

Itsasadar honek experientzia badu. Ez dago oso atzera begiratu beharrik. Gogoratu ditzagun, hainbat eta hainbat Txapelketa, Estropada Internazionaleak eta bar, etabar.

Horregatik Gida batzorde berriaren filosofia orainaldia eta etorkizunari begira, Arraunketa Olinpikoa indartzea da. Jarleku higikorrez bete, gelditzen zaigun leku egokienetako bat, bakarra ez esateagatik.

Orio mailan bakarrik ez gainera. Arraunketa Olinpikoa indartzeko ideia eta planteiamendutan sinisten duten Estamentu Publiko, Federakuntza, Elkartea, Komunikabide, Kolektibo eta Indibiduoentzat eskuak zabalik ditugu.

Gai hau gehiago hondatuz eta 87 denboraldirako jarleku higikorreko estropada programazioa ikusiz, irri-garrezko proba kopuruarekin aurkitzen gara.

Hau ez da serioa. Kirol Olinpikoak eta bereziki jarleku higikorreko arraunketak, ORIO Arraunketa Elkartea eta Oria itsasadarrek, toki eta zulo guztietara dehiadar egiten dute:

Ez gaitetzen "outrigger"etaz ahaztu!

Aho beteaz hitzegiten dugu arraunlari internazionalak, Olinpiko dominak, mundialistak. Baina, ez ahal dauzkagu lurreko oinak? Zenbaterainoko indarra du



Arraunketa Olinpikoak Euskadin, gaur egun eta etorki-zunerantz? Serioski ari ahal gara lanean, goimailako internacional arraunlariak sortzeko?

Arraunketa familia guztiari, gai hontaz erreflexio sakona eskatzen diogu.

Gure antzera, "outrigger"etan sinisten duten guztiekin lan egiteko prest gaude. Baita ere, aipatu beharrik ez dago, irekiak gaude klase guztietako eritzi, sugerentzi eta kritikak jasotzeko, arazo hontaz.

Gauza asko dauzkagu ikasteko eta sekulako gogoia gainera.

Zuen zai gelditzen gara.

Zer egin behar ote dute tostako arraunketarekin?

Galdera hau egingo zenuten noski.

Ahaztu ote dira? Posible izango ote da?

EZ!! Tostako arraunketaz ez gara ahaztu!

Estropadatako historian zehar, ORIO exponente fidela izan eta da. Gehixeago esatera ausartuko gara, ez bakarrik fidela, baizik eta zenbait garaitan, lehia keteetako maixu eta pizgarri. Gehiago oraindik, jarraitzea espero du. Jakina, inguruak, material eta gizatiar posibilitateak eskaintzen duen arabera, noski.

Tostako arraunketaz, azpimarratuko ditugun premie tatik abiatzen gara:

- Arraunketa Olinpikoko denboraldia, Ekaina azkenera bukatzen da.
- Espezialitate berrira moldatzeko, denbora gelditzen da.
- Abuztuan jartzen bait da sutan, traineruen denboraldia.
- Baditugu planeamendu hontaz, esperientzia positiboak.



Hortaz, trainerutaz bakarrik arduratuko garela argi gelditzen da. Batela eta trainerillak ez ditugu landuko. Gure aukera garbia da: Arraunketa Olinpikoa denboraldi osoa egingo dugu eta tostako arraunketan, trainerua bakarrik.

Hau dena "senior" mailari dagokionez. Beste kategori guztietan jarleku higikorrarekin jarraituko dugu.

Gure eritziz, logikoa da pentsatzea, jarrera honek ondorio kaltegarriak ez duela sortuko batela eta traineriletako lehiaketetan. Kontuan edukiz, makina elkartek bere inguru fisikoaren arabera, arraunketa olinpikoa egitea posible ez duten arren, badutela ordea, tostako arraunketa lantzea.

Azken finean, hauexek dira azaldu nahi genituen zenbait ideak. Hara eta honera saltoka ibili gara baina lanerako plangintza ulertu delakoan gaude.

Gure proiektuak dira eta ea besterik ez bada ere, erreflexiorako baliagarri izaten diren.

Azkenik eta berriz ere errepikatuz, guztion eritzi edo laguntzaren zai gelditzen gara. Behartuak gaude gainera, ahalik eta gehien jasotzea.

Orri hauetaz baliatuz, guretzat eskatzen dugun bezelaxe, kirolzale eta arraunketazale guztioi, zorte ona izan dezazuela.

Agur.

Orio, 1987, Urtarrilla

GIDA BATZORDEA



arraunketa

TOSTAKO ARRAUNKETA

Batelak, Trainerilak, Traineruak.

ARRAUNKETA OLINPIKOA

Skiff-a (1 X), Scull bikoitza (2 X).

Lemazain gabeko bikoa (2 -), Lemazaindun bikoa (2 +).

Lemazaindun laukoa (4 +), Lemazain gabeko laukoa (4 -).

Binako laukoa (4 X), Zortzikoa (8 +).

Ur-kirola da arraunketa, uretan egin ohi den kirola. Esaterako, famatuak dira Donostiako Kontxa badiako edo Bilbo ibaiadarreko estropadak urtero irailean. Bi era desberdin daude arraun-lehiaketan: Tostako arraunketa eta Arraunketa olinpikoa edo jarleku higikorrekkoa.

Tostako arraunketa, guztiz ezaguna da Kantauri Itsasoko herrietan, hasi Galiziatik eta Euskal Herriraino. Esan gabe doa, helburu praktikoa zuela gurai batetan lehiaketa honek. Lehen, izan ere, arraunez higiarazten ziren untziak; eta, gaur arrantzan emanik, norgehiagoka bezala heltzen ziren arrantzaleak portura, arraina preziorik hoberenean saldu ahal izateko. Hona tostako arraunaren edo estropaden jatorria.

Tamaina desberdinetako untzien estropadak egiten dira:

- *Traineruak*: Hamahiru arraunlari eta patroia dituzte. Hiru itsas-miliako ibilia egiten dute, joanetorri bakarrean; edota bi joanetorritan, hiru ziabogarekin.

- *Trainerilak*: Sei arraunlari eta patroia, eta 3.500 m.ko ibilia.

- *Batelak*: Lau arraunlari patroiarekin, eta 2.000 m.ko ibilia.

*Arraunketa olinpikoa*k, aldiz, untzi batzuek bina arraunekoak (arraunlari bakoitzak bi arraun) izaten dira, eta arraun banakoak, beste batzuek. Untziaren antolaketa klasikoan ababorreko arraunlari baten atzean istriborreko bat ipintzen da eta honen atzetik ababorreko bat, etab. Hankekoa deitzen dena, nahiz ababorrekoa nahiz istriborrekoa izan daiteke.

Untzi guztiek dute lema; ez, ordea, lemazaina. Lemazaina duten biko-outrigger-etan, hau etzanda joaten da brankan.

Bi untzi-mota daude: lolak eta outrigger-ak. Untzi sendo eta astunak dira lolak. Hasiberriei arraunean erakusteko edo itsasoko estropadetan bakarrik erabiltzen dira. Sei edo zortzi zentimetro zabaleko ohol gainjarriz eginak dira.

Kategoria desberdinak daude arraunketa olinpikoan:

a) Skiff-a: Arraunlari bakarrak bi arraun erabiltzen ditu. Ez du lemazainik (1 X).

b) Binako bikoa edo scull bikoitza: Bi arraunlari, bina arraunekin lemazainik gabe (2 X).

c) Lemazain gabeko bikoa: Bi arraunlari, arraun banarekin, lemazainik gabe (2 -).

d) Lemazaindun bikoa: Bi arraunlari, arraun banarekin, gehi lemazaina (2 +).

e) Lemazaindun laukoa: Lau arraunlari, arraun banarekin, gehi lemazaina (4 +).

f) Lemazain gabeko laukoa: Lau arraunlari, arraun banarekin, lemazainik gabe (4 -).

g) Binako laukoa: Lau arraunlari, bina arraunekin, lemazainik gabe (4 X).

h) Zortzikoa: Zortzi arraunlari, arraun banarekin, gehi lemazaina (8 +).

Estropaden luzera 2.000 m. zuzenekoak izaten da seniorrentzat, 1.500 m.koa gizonezko juniorrentzat; eta 1.000 m.koa emakumeentzat.

1900. urteko joko olinpikoez geroztik, kirol olinpikoa da arraunketa.

arraunketa

ARRAUNKETA OLINPIKOA

Skiff-a (1 X). Scull bikoitza (2 X).


Lemazain gabeko bikoia (2 -). Lemazaindun bikoia (2 +).

Lemazaindun laukoa (4 +). Lemazain gabeko laukoa (4 -).

Binako laukoa (4 X). Zortzikoa (8 +).



- 649
- 650
- 651
- 652
- 653
- 654
- 655
- 656
- 657
- 658
- 659
- 660
- 661
- 662
- 663
- 664
- 665
- 666
- 667
- 668
- 669
- 670
- 671
- 672
- 673
- 674
- 675
- 676
- 677
- 678
- 679
- 680
- 681
- 682
- 683
- 684
- 685
- 686
- 687
- 688
- 689
- 690
- 691





babor	babor	bâbord
baborroan arrasasan egia	remar a babor	ramer à bâbord
berdala	abordaje	abordage
bortzia	orza	dérive
iru-ganbara	cámara de aire	pontage
libano balizamenda	balizamiento albano	belisage albano
luera	puntal	hauteur
malera	final (arraunkadaren fasea)	départ
urraun	remo	aviron
urraun banako uztai	bote en punta	embarcation de pointe
urraun labur	remo corto	aviron en couple
urraun-pala	pala del remo	pelie de l'aviron
urraun-) zango	caña del remo	collet de l'aviron
urraunecan egia	remar	ramer
urraunkada	estropada / palada	coup / passe dans l'eau
urraunkada-kopara	número de estropadas	coups minute
urraunkada-kronometro	crómometro de paladas	chronomètre de coups
urraunkadak	eleva el número de	augmenter la cadence des
gehita	paladas	coups
urraunlari	remero	rameur
atol	remorque	chariot
atsekatu	atracar	aborder
baliza	baliza	balise
balizala	balizaje	balisage
barnekaldeko beso	brazo interior	bras intérieur
bataia	batel	boîte
berrukera	repesca	repêchage
biako biko +2 x=	doble scull +2 x=	doble scull +2 x=
biako lau +4 x=	cuatro couple +4 x=	quatre de couple +4 x=
branka	proa	étrave
brankari	proel	équipier d'avant
bulkada	empuje (arraunkadaren fasea)	passe
canoë	canoë	canoë
epalle-untzi	embarcación de jueces	bateau des juges
eraso	ataque (arraunkadaren fasea)	attaque
eskuter-jalote	pasamano	baïsser le poignet
estatia	estacha	amarre
estropada	regata	égare
estropada-eremu	campo de regatas	champ de courses
estropada-untzi	bote de regatas	bateau de course
estropaden ibilbide	recorrido de regatas	champ de courses
estropu	estrobo	estrop
final	final	final
final txiki	pequeña final	petite finale

arraunketa



arraunketa

TOSTAKO AR
Batelak. Trainerik

nalardi	semifinal	demi-finale
idari	guia	rail
ila	quilla	quille
ollare	cuchara (palarena)	courbe de la pelle
iankeko	marca	chef de nage
elimgako dorre	torre de llegada	tour d'arrivée
ondoratu	bundirae	sombrer
ola	yola	yole
rtora(ko) bandera	bandera de salida	drapeau de départ
rtorako dorre	torre de salida	tour de départ
rtora(ko) epalle	starter	starter
rtorako eskila	compaña de salida	cloche de départ
rtorako laguntzale	auxiliar de salida	suppléant du starter
estribor	estribor	tribord
estriborrean arrotasun egia	remar a estribor	ramer à tribord
kaspokaldeko beso	brazo exterior	bras extérieur
kasporaketa	eliminatória	éliminatoire
karel	regala	plat-bord
kontrol-batzorde	comisión de control	commission de contrôle
leheneratu	recuperar	faire retour sur
leheneratze	recuperar	retour sur l'avant
lema	timón	barre
lema-egati	alita del timón	gouvernail
lema-kable	cable del timón	tire-veille
lemata	timonear	barrer
lemazala	timonel	barreur
lemazala gabeko bilko	(outrigger) dos sin (timonel)	deux rameurs en pointe
(outrigger) «2-»	«2-»	sans barreur
lemazala gabeko leuko	(outrigger a) cuatro sin	quatre rameurs en pointe
(outrigger) «4-»	(timonel) «4-»	sans barreur
lemazalarekin jariketa	asiento del timonel	siège du barreur
lemazaladun bilko	(outrigger a) dos con	deux rameurs en pointe
(outrigger) «2+»	(timonel) «2+»	avec barreur
lemazaladun leuko	(outrigger a) cuatro con	quatre rameurs en pointe
(outrigger) «4+»	(timonel) «4+»	avec barreur
lerradura	deslizamiento	coulissement
lerruzale	alineador	aligneur
luzera	osloa	longueur
marruskagune	lechadero	manchette
ole-taila	plancha de entrada	plancha de pied
oloteld	calapit	sole-pied
orokatu	equilibrar	stabiliser
orpa	carro	chariot
outrigger	outrigger	outrigger



RAUNKETA k. Traineruak



732	palada	estropada / palada	coup / passeé dans l'eau
733	palada-kopuru	número de estropadas	coups minute
734	palka	bote-aguas	
735	scull bikoltz «2 x»	doble scull «2 x»	double scull «2 x»
736	skiff «1 x»	skiff «1 x»	skiff «1 x»
737	skiffari	skiffista	skiffier
738	starter	starter	starter
739	tiborta	empuñadura del remo	poignée
740	tolet	tolete	dame de nage
741	trainerilla	trainerilla	trainerilla
742	tralaera	trainera	trainière (baleinière)
743	tripulazio	tripulación	équipage
744	txardengo	chumacera	sabord
745	txardengo-ardatz	eje de chumacera	axe de dames
746	txopa	popa	poupe
747	txakadara	achicador de agua	écupe
748	txakata	achicar	écoper
749	uhara	estela	pillage
750	ukur	cabecero	tangage
751	untzi	bote	embarcation
752	untzia alemanen erara astolatze	montar el bote a la alemana	armer le bateau à l'allemande
753	untzia astolatze	montar el bote	armer le bateau
754	untzia italiarren erara astolatze	montar el bote a la italiana	armer le bateau à l'italienne
755	untzigile	constructor de botes	constructeur de bateaux
756	untziraleku	embarcadero	passerelle
757	urataru bota	echar al agua	mettre à l'eau
758	urgaineko untziraleku	embarcadero flotante	radeau
759	xabalera	manga	largeur
760	ziaboga	ciaboga	virage de bord
761	zortziko (outrigger) «8 +»	(outrigger a) ocho «8 +»	huit «8 +»
762	zakar	cuaderna	varangue





Herri
ikastola

OROKO NERI IKASTOLA

Ikastolaren nondik-norakoa

L. L. L.

Herritik sortua eta herriak eraikia izanik, herriko haurren hezkuntzari begira ari da lanean ikastola. Hezkuntza honek haurra bere osotasunean hartu nahi du: bere alderdi fisikoan eta bere alderdi psikikoan, adi menari dagokionean eta nortasunari dagokionean, hala teoriari dagokionean nola praxiari dagokionean, oroi-menari nahiz sormenari dagokionean, perzepzioari nahiz eraikuntzari dagokionean, haur bakoitzaren originalitateari bezalaxe haurren taldekotasunari ere begiratuz.

Ez da txantxetakoa ikastolak bere gain hartu duen eginkizuna: etorkizunean gure herriko arazoan eta gudaritza beren eskuetan izanen dituztenen hezkuntza integrala. Eginkizun hau ongi betetzeak, ikastolaren partaide diren guztien lankidetzatza estua, koordinatua eta borondatetsua eskatzen du.

Baina, borondate ona ez da nahikoa. Borondate horrek gure ahaleginak bide emankorretatik bideratzera eramane behar gaitu. Hasteko, guraso, irakasle eta hezkuntzako beste arduradunek gaiti eduki behar dituzte hezkuntzaren helburuak. Ondore, helburu horiek zein bidetatik lor daitezkeen ongi tinkatu behar dute. Azkenik, lortutako emaitzak aurriz finkaturiko helburutara zenbateraino hurbiltzen diren aztertuko da.

Norantz goaz?

Pedagogiako plangintza guztiak bereziki behar di

tuzte urruneko helburuak, bitarteko helmugak eta bere halako jomugak. Izan ere, prozesu mailakatu batek bakarrik eraman gaitzake lortu nahi ditugun helburuak lortzera. Mailakatze horretarako kontutan eduki behar ko ditugu haurraren psikologia ebolutiboa, hezkuntz instantzietatik datozkigun orientabideak, kultur inguruetik jasotzen ditugun exigentziak, ditugun baliabideek ezartzen dizkiguten abantail eta mugak...

Hezkuntza-prozesuak aurrerabide mailakatua izan behar duela garbi utzita gero, aurrera ditzagun hemen prozesu horren buruan gure haurrengan ikusi nahi genituzkeen bereizgarri batzuk:

A) Nortasunaren aldetik:

- Gauza berrienganako, positiboen eta negatiboen artean bereizteko eta erabakitzeke gaitasunarekin.
- Emozionalki egonkorra izan dadila.
- Ez dadila izan exzitakorra: bere buruarekiko, inguruarekiko, lanarekiko, jolasarekiko behar besteko patxada eta sosegua lortzen joan dadila.
- Autonomia lortzen joan dadila. Ez dadila izan, ez domeinatzailea, ez eta menpekoa ere.
- Iniziatibaduna eta bere kabuz gauzak egiteko gai izan dadila.
- Bere burua onartu eta estimatu behar du. segurtasuna behar du berengan. Ez du zalantzatsua izan behar (ez dugu honekin zalantzarik eduki behar ez duenik esan nahi!)
- Lagun artean ibiltzen jakin behar du, eta pozik ibiltzen gainera. Lagunen arazotaz interesatzen jakin behar du, eta bere arazoak lagunekin tratatzen.



- Ardura eta erantzunkizuna erakutsi behar ditu.
- Ongi dagoenaren arabera ikasi behar du eta horretarako aztura berenganatu. Moral heteronomotik moral autonomora iragan behar du: ongi jakatzen ikasi behar du, baina ez besteek eskatzen diotelako, kontzertu i kastala

-

B) Adimenaren aldetik:

- Behatzen ikasi behar du haurrak, eta behatutakoa ongi deskribatu eta jasotzen.
- Sentipen ezberdinak perzeptzio aberatsetan biltzen eta, ikuspuntu ezberdin elkarrekilatzeari esker, perzeptzioa gaindituz abstrakzioa eta kontzeptura heltzen ikasi behar dute haurrek. Abstrakzio erreflexiboaren eremua ongi lantzen ikasi behar dute.
- Abstrakzioaren espazio mentala zedarritzen eta espazio horretan kontzeptu eta errepresentazioak ordenatzen eta elkarrekilatzen ikasi behar dute haurrek.
- Herriarengandik jaso duten kizkuntz ondarea bereganatu behar dute, bai ahozko literaturari dagokionez, bai literatur idatziari dagokionez. Euskara maitatzera heldu behar dute, eta edozein arlotan euskara aberatsa erabiltzeko trebatu eta gaitu behar dute.
- Euskararen ezezik, gaztelanian (bigarren hizkuntza) eta ingelesean (hirugarren hizkuntza) ere espresio aberatsa lortu nahi dugu ikastolako haurrengan.
- Matematika bizia irakatsi nahi diegu haurrei. Haurren ekintza eta manipulazioetatik abiatuta, erakuntzaren teoria piagetiarrean oinarrituta, eragi-



keta aritmetikoetan trebetasuna lortu behar dute haurrak, hizkuntza logiko-matematikoan eroso aurkitu behar dute eta topologian nahiz geometrian aditu behurtu behar dute.

- Inguru naturala eta gizarte ingurua behatzen, deskribatzen eta zaintzen ikasi behar du. Natur nahiz gizarte arloan antolamendua ezagutu behar du. Ezagumendu horretan oinarriturik, antolamendu hori kritikagarri, berrantolagarri eta hobegarri bezala ikusten ikasi behar du. Antolamendua egokia den kasuan, antolamendua zaintzen ere jakin behar du. Nolanahi ere, naturako eta gizarteko elementuak maintazen ikasi behar du.
- Bere gorputza ezagutzen, gorputza eskema egokia osatzen, motrizitate eta gorputz espresio aberats baten jabe bihurtzen irakatsi behar zaio. Gorputzaren osasunerako, zalutasunerako, erlaxapenerako eta estetikarako; soinketaz, atletismoaz eta kirol mota desberdinez baliatzen irakatsi behar zaio.
- Gorputz espresioak luzapen bat aurkitu behar du espresio plastikoan. Edozein materialez egin daitezkeen plastika lanen bidez haurraren zentzun estetikoak eta trebetasun artistikoak landu nahi dira.



Finkatuak ditugun helburu hauek mailakatu egiten ditugu beraz, eta ikasturtez ikasturteko helmuga eta jomugatan zehatzen. Horixe da hain zuzen ere ikasturterako plangintzen xedea.

Nondik goaz?

Arlo bakoitzari, eta arlo bakoitzean haurrak lortua duen garapen mailari egokitu behar zaio metodoa.

Horren arabera baliatuko gara metodo transdukti-
boaz, induktiboak, deduktiboak ala induktibo-dedukti-
boak.

Nolanahi ere, aktiboa behar du izan pedagogiak,
erabiliko dugun metodoak haurraren eskuhartze aktiboa
eskatu behar du. Ez du horrek esan nahi aktibitate-
tan barreiatu eta galdu behar duenik haurrak: ekin-
tza horiek elkarrekin erlazionatuko ditu, abstrakzioa
eta pentsamenduaren prozesu logikoak landuko ditu.

Haurraren nortasunaren garapenari dagokionez,
bai gurasoek, bai irakasleek, bai gizarteak, identi-
fikazio eredu egokiak eskaini behar dizkio haurrari.

Haurraren nortasunaren garapenaren buruan, adin
ezberdinetan, sor daitezkeen gatazkak aurrikusten, de-
tektatzen, argitzen eta bideratzen jakin behar dute
gurasoek, irakasle-totoreek eta herriko hezkuntz ins-
tantzia ezberdinak. Eduki behar du ikastolak zentzu
horretan Orientazio Zerbitzu bat, bai prebentzio la-
nak egiteko, bai kasu larrienak tratatzeko edo kontse-
latzeko.

Moralitate heteronomotik moralitate autonomora
iragan behar badu haurrak, kanpoko eskakizunen arabe-
ra jokatzetik barne eskakizunen arabera jokatzera ira-
gan behar badu, hezitzaileek barne motibazioa landu
behar dute haurrerengan. Barne motibazioa lantzeko be-
rriz haurraren balio sistema landu beharrean aurkitzen
gara. Hortik, etikaren eta axiologiaren beharra.

Lorkuntzak ebaluatzen

Helburuak finkatzea eta metodoak zehaztea bezain
garrantzitsua da, aldika-aldika, lortzen ari garena



lortu nahi genuenarekin alderatzea. Horrela bakarrik bete ditzakegu programazioaren hutsuneak, horrela bakarrik zuzen ditzakegu metodologiaren aldetik egon daitezkeen akatsak.

Eskola porrota da gaur egun hezkuntzaren mundua aztoratzen eta asaldatzen duen mamua. Esan ere esaten da, eskolak berak ere ba ote duen erantzunkizuna eskola porrotaren sorreran. Garbi dagoena zera da: ikastolak ezin duela haur bat bera ere utzi bere adimen gaitasunak ahaleztatzen dion lorkuntza mailaren azpitik.

Haurraren errendimentua bere adimen mailari dagokiona baino kaxkarragoa bada, ikastolak zergatiak aztertut behar ditu, eta egon daitezkeen afektibitate, nortasun nahiz motrizitate problemak berehala detektatu. Alde honetatik interesgarriak dira nortasunaren eta adimen heldutasunaren arteko koerlazioak aztertut nahiz egiten ari garen ikerketak.

Eskola porrotari aurre hartu behar zaio, eta hori porrotaren sortzaile diren faktore sozio-familiarak, afektiboak, akademikoak... detektatuz bakarrik egin daiteke. Errekuperazio lana baino areago prebentzio lana da.

Prebentzio lan honek, beraz, haurraren azterketa multidimentsionala eskatzen du. Horrela eginez gero bakarrik ikusiko dugu, aurrera egitea galera dion problema edo gatazka nagusia haurraren zein aldetan lekutua dagoen.

Era berean, haurraren aurrerapenak neurtzerakoan, sozializazio, nortasun, motrizitate, eta axiologi aldetik egin dituen aurrerapenak ere ebaluatu behar ditugu, akademiko aldetik egindako aurrerapenekin batera. Horrela, haurraren alderdi sozio-familiarra ebaluatzerakoan, oso baliagarri izanen zaio irakasleari gurasoak eskain diezaiokeen laguntza.





Emakumeak ere hitza badugu

Emakume Talde bat Orion ba dagoela entzun izan arren eta aldizkari honen sortzaileek eman diguten aukera aprobetxatu nahirik, orri honen bidez, nola eta ZERTARAKO sortu ginen adierazi nahi genuke.

Orain dela bost urte, Orion kultura aldetik eta batipat emakumeen egoera hobetzeko, inongo talderik edo erakunderik ez zegoela ikusirik, biltzen hasi ginen zeuden beharrak eta kezkak aztertu nahian.

Hasteko, programa batzuk antolatu genituen batzuen bitartez.

Zenbait gairi buruz lan egin genuen, kontutan harturik zer nolako garrantzia duten denontzat.

Haletako batzuk hauek dira:

- Antisorgailuak.
- Alkoholismoa.
- Dibortzioa: legeak emakumeengan duen eragina.
- Feminismoaren historia.
- Sexologiari buruzko ikastaroa.
- Etxeko andrea eta depresioa...

Gai guzti hauekin batera baita ere, emakumeok aktibitate batzuen beharra degula, zenbait gauza antolatu zen: makrame, bustina, soinketa, gorputz-es-



presioa ta abar...

Benetan, beharrak bazeuden eta badira, jaso genuen erantzuna ez bait zen txikia.

Hau izan da orain egin diren ekintzen aipamena, baina noski, gure asmoa ez da hemen bukatzen.

Gure helburuetako bat, emakumeon egoera hobetzea (bai etxeko-andrea, emakume gazte... hau da, denon egoera), eta eskubide berdin batzuk lortzea izango dela esan dezakegu.

Gure iritziz, zenbait gai Udalak bultzatutakoak izan behar lukete, baina zoritxarrez, Udalaren gehiengoak gizonezkoak izanik, ez dira arduratzen emakumeen arazoetaz, nahiz eta bere ingurunea emakumez osaturik egon.

Honetarako emakumeok hasi behar dugu, gure inguruan dauden senar, seme, guraso, gizonezko guztiei, adierazten eta onartu arazten, emakume bezela, gure eskubideak ditugula. Adibidez, etxeko andrearen ikuspegia aldatu...





Zer dela eta egon behar dugu, etxeko lanei eta haurrei lotuta bereziki?

Ba dira ordu batzuk honetara dedikatu beharrekoak, bainan baita ere, behar ditugu beste une batzuk, bakoitzak, berari gehien gustatzen zaion aktibitate bat egiteko, etxeko orduetatik kanpo.

Baita ere, informazioa exigitzeko eskubidea dugu, harremanak hobetzeko (bikote, lagun, gurasoetako...), orain arte gizarteak eskeini dizkigun EREDUAK aldatuz.

Azken finean, gizonezkoak eta GIZARTEAK, gure eskubideak onartzen dituen neurrian, aldatuko dugu gure egoera.

Orioko EMAKUME TALDEA.



Orioko FUTBOL TALDEAren barruan aurtengo tenporada edo denboraldi onetan 86-87 ibili ditugu 130 neska eta mutil artean, 12 urtetik 20 urte barruan.

Gure 10 urteko gestio onetan konturatu gera, urte gutxi barruan gendea asko asi dela euskeraz itzegiten. Naiz egon edade bat ortxe amabi urtetik amabost urtera erderaz asko egiten dute.

Baño ori bai konturatu gera geio direla erriz kanpoko eskoletan ibiltzen direla. Baño dauzkagu tarten erdaldun batzuek eta baita bi mutiko marrokik 14 urtekoak, zein ederki egiten dute euskeraz.

Baita ere, aurtengo denboraldi barruan Gipuzkoako Futbol Federakuntza asi da oso lan aundia egiten ya que bidaltzen digute bai aktak eta zirkular guztiek bilinguen.

ORIOko FUTBOL TALDEA

Hauexek izango lirateke nik dudanaren arabera aurrera bultzatu beharreko eginkizunak:


- Gaztetxoekin hasita, posible ikusten dut Orioko "Kontserbatorioan" ikasten ari diren musika-tresna desberdinekin, eta batez ere, orain udarari begira, igande eguerditan edo jendeari erakustea beraien aurrerapenak. Edozein arlotan: txistu, trikitixa, esku-soinu handia, kontzertu musika-tresnak, etab.
- Bai Ikastola eta bai Nazionaletakoa haurrak egun berezi batzutan, antzekiak antzesten ikusi izan ditugu. Beharrezkoa ikusten dut lan hori gehiagotan egitea.
- Gero, hain gaztetxoak ez direnentzat, zerbait falta dela argi dago baina, zer? Zaila iruditzen zait hauekin asmatzea, baina beharbada beraiekin bilera batzuk eginez eta beraiei gauzak antolatzeke arduraz emanaz zerbait positiboa aterako litzateke.
- Elkarrizketa batetan entzun nuen ideia hau eta oso ona iruditu zitzaidan, hauxe hain zuzen: jubilatuta dagoen jendea eta lehenago esku-lanak egin zituz badira, oso polita eta positiboa izango litzeteke beraien jakinduria gazteei erakustea eta horrela ezer egin gabe daude gazteak zerbait ikasteko eta denbora nolabait betetzeko posibilitatea edukiko lukete.
- Azken gauza gazteek daukaten denbora librearen nola bete izango litzateke. Gazteek edota edozein adine

tako jendeak.

Puntu guzti hauek aurrera eramaten hasteko beharrezkoa ikusten dut Udalaren laguntza.

SAN JUAN ELIZPE PRESIDENTEA.





ORIOko HERRI BATASUNAK ALDIZKARI HONI, BAI !!

Aspertuak gaude "euskararen alde nago", "euskaraz egin behar dugu", eta honelako zenbait eta zenbait esaldi eta esanetaz. Asmo guzti horiek errealitate bihurtu beharrean, horretan bakarrik gelditzen bait dira: Asmo-tan.


Horregatik, aldizkari honen lehenengo kaleratzea denez, beharrezkoa iruditzen zaigu ideia eta lana aurre-ra duen gizataldearen ahaleginak, eskertu eta zorion-tzea.

Gaur egun, mundu eta gure inguruko "mass-media"tik jasotzen dugun informazioa, objetiboa eta egizalea dela esatea, begiak itxitzea da. Gainera, kontuan hartzen badugu euskararen balio eta garrantzia gure herriaren burjabetasuna lortzeko, ulertu dezakegu komunikazio-bide potente horien kapitalarekiko dependentziak zer nolako helburuak lortu arazten dituen. Gurekin bat ez datozen helburuak noski.

Beraien helmuga eta betebeharra, euskara folklore bezala erabiltzea da. Guretzat alderantziz, hizkuntza moderno, sakon eta eguneroko bizitzaren arlo guztien komunikabide tresna bezala erabiltzea. Hauexek da lortu behar duguna.

Badakigu, nola ez ba, komunikazio-bideetatik jasotzen ditugun informazio eta iritzi teledirijituak aurre egitea ez dela batere erraza. Osoko zaila eta neketsua.

Eskuetan duzuen bezalakoxe aldizkaritxoak da erarik merke eta errazenetako bat. Ezer gutxi besteen potentzialaren aurka, baina oriotarrok irakurtzen badugu, aurre-



ra-urrats haundia izango da, euskararen azken fina lortzeko.

Animo eta jarrai aurrera!

Orioko Herri Batasuna

1987, Maiatzak, 5.a

-ERITZIAK-

-IPULHAK

-DENDORAPASAK-

-ORIOARROK

DUTE WITZA.

-SALAKETAK-

-ZURRUMBARU-
-LAK-

-POESIA-



Ematen duenez, aurtengo traineru denboraldia zeharo gogorra eta burruka handizkoa aurkezten da. Hor daude: Pasai Donibane, Zumaia, Santurtzi, San Pedro.

Baina,

- TRAINERU DENBORALDIAN, ORIO TXAPELDUN OTE? -

Dударик gabe, asko esatea da, baina Orioko Arraun keta Taldeko gizonen pentsamenduak bide hortatik doaz.

Dena dela, aitortu beharra dago ere, aurtengure "San Nikolas" osatuko duen kuadrilla apartekoa dela. Orain arte, eta egun gutxi barru Estatu Txapelketa izan arte, "banko mobil", jarleku higikorra izeneko espezialitatean jardungo dira.

Gero, eta 70 urtetako hamarkada gogoko hartan egiten zen bezala, skiffak, bikoak, lauhoak eta zortzikoak utzi, eta denok bat egin, eta txalupa hori garaile uretara bota, ikurrina eta dominen bila.

Aurtengoan ez dira egongo ordungo Estanix, Luxiano, Altxerri, Agote, etabar; bai ordea: Ibon, Jose Luis, Amilibia, Primi, Txomin, Embil, etabar, etabar...

Txapeldun gai ugari

Izan ere, ez da gauza erraza suertatuko udara honetan nagusi azaltzea Kantaurikoko estropadetan, traineru on ugari izango baita.

Aurrena, gogoratu behar da joan den urtean Doni baneko pasaitarrak egin zuten demostrazio bikaina, parte hartu zuten proba guztitan.

Dena den, badirudi, aurten kostapeko trainerillaren emaitzak ikusiaz, eta zurumurruez aditu ezke ro, ez dela beste hainbesterik gertatuko.

Beldur handiago izan behar azkeneko urte haue-tan lehendabiziko postutan ibili diren zumaiarrak direla eta. Orain dela astebete batzu trainerilletan Espainiako Txapeldunak izandakoak, eta badituzte beste bi trainerilla lagun ere (B eta C traineri llak).

Ezer berririk ez Santurtzitik. Bakarrik, azkeneko urtetako jende gaztearekin ari dela, eta hor egongo direla, aurrean eta onenekin.

Sorpresarik handiena izango litzateke batzuen tzat Sanpedrotarrak goian aitatutakoekin burrukan ikustea, baina, traineru morea beteko duten arraun-lari bikainak ezagutuz, bostgarren faborittoa dela esan beharra daukagu.

Oriotarron eta horiz jantziko garen guztion nahia, denen aurrean gure "San Nikolas" ikustea izan go zen. Eta, zergatik ez. Aupa mutilak !!!

Manu Etxeberria.

ERLOJUA MANTSOEGI MUGITZEN DA BATZUTAN

Egia da, nere usteen denok daukagu aurreko esaldia baieztatzen duen anekdota bat.

Eta zinemako zuzendariek asko jokatzten dute denboraren zentzu erlatibo honekin, batez ere "suspense"ko pelikuleen egileek.

Saïritan azaltzen den eskena da hau: irteerarik gabeko toki biktima honek somatzen du gaizkilearen presentzia, presentzi hau hurbiltzen doa. Biktimaren aurpegi izarditsuaren planuak ikusten dira, bere egonezina eta urduritasuna aregotzen doazelarik. Gaizkilearen pauso sendoak ikusten edo entzuten dira. Eske na hauetan normalki ez dago hitzik baina soinak bai, soinu ritmikoak, erlojuarenak bezalakoak.

Beraz, moralejarik balego hauxe izango litzateke:

gustora nagoenean denbora (erlojua) azkar doa, gaizki edo ez hain ondo nagoenean erlojua mantso mugitzen da.

Gaztaroan edo haurtzaroan erlojua mantso mugitzen zen, eta ez nuen gaizki pasatzen. Beraz, aurreko moraleja horrek badu salbuespena.

Gero irakurri nuen nola psikologo batzuk hori esplikatzen zuten esanez gaztaroan eta haurtzaroan erreferentzi gutxi geneuzkala, eta heldutasunean gure memoria erreferentziz aberatsak denboraren pausoa azkartzen zuela.

Dena den, oraindik ere pertsona bakoitzak izaten ditu egunean zehar, denbora erritmo edo pausu

diferenteak eta ez dago gaizki hori jakitea.

Gauza bera esan daiteke urtaroei buruz, adibidez, luzeak egiten dira neguko egun euritsuak eta motzak udaberriko egun alai eta argitsuak. Halaere ondo dago jakitea denboraren erritmo diferente honen perzepzioa geuk alda genezakeela.

Nola? Meditazioarekin.

Isiltasuneko meditazioa bada behintzat, orduan denbora errege edo jainko bihurtzen da, eta zentzu guztiek errege berria gurtzen dute. Jainko kurioso honek bere arauak ditu eta hauek inportanteena hau da: Ez mugitu.

Antxiola.



ASTE SANTUAK ZUEN ZENTZU ERLIJIOSOA GALDU EGIN DU

Bai, ene iritziz goiko esaldi osoa egia da. Eta horren arrazoiak oso sinpleak dira, jendeak ez du (zorionez) lehenago bezala sinisten.

Nola nabaritzen dugu Aste Santuen laizizazioa? Urrutira joan gabe, herri eta hiriak jendea Aste Santuan bertan geratzen zen, eta elizkizun eta prozesiotan parte hartzen zuen. Horretaz aparte, kaleko giroan nabarmentzen zen Asten Santuari, berez, dagokion goibeltasuna. Leku askotan, tabernak, bai diskotekak, bai zinemak, etabar, ixten zituzten Aste Santua zela eta.

Gau egun kaleko panorama Asten Santuan oso ez berdina da: automobil gutxiago, jende gutxiago, normalki, baina dena irikita.

Jendea desiatzen dago aste hau iristeko oportetara joateko, ondo etortzen bait da "aperitivo" hau Udako oporren aurretik.

Hala ere nahiko jende ikusten da prozesiotan, baina ez prozesio guztietan, batez ere ospea dutenetan. Adibidez Euskal Herrian: Segura, Hondarribi, Balmaseda, etabar.

Jendeari teatroa gustatzen zaio, eta nola ez dohainik izanda?

Espektakulo erlijioso honetan ikusteak ez du adierazten jende honer erlijiotasuna.

Zergatik Aste Santuak galdu du zuen zentzu erlijiosoa? Erantzun botza hau da, jendeak ez du

sinesten edo sinisten badu beste modu batean sinis-
ten du. Askoez esaten dute: "Kristorengan sinisten
dut, baina ez elizarengan."

Kristautasunak jai paganoak bizinterpretatu
zituen eta orain gizarte laiko honek kristau jaiak
aprobetxatzen ditu beren zentzu erlijio motelduz.

Aldaketa hau, pixkanaka egin da urtez urte,
eta estatu guztian aldaketa politikoarekin 1977-ean
gutxigorabera, azeleratu zen edo areagotu zen aspal-
diko laizizazio-prozesua.

Frankok babestu zuen Eliza, honela bere esker-
ona adieraziz.

Bada ordua beraz, Elizak bere aspaldiko zorrak
ordaintzeko, zorrak jendearekin, etikarekin, tole-
rantziarekin.

Beti egoten dira salbuespenak, baita Elizan ere:
apaiz, fraile, moja aurrerakoiak ere izan dira, eta
Euskal Herrian izan ditugu herriaren alde jokatu zu-
tenak, adibidez, ikastolei babes juridikoa emanaz ha-
siera larri haietan.

Antxiola.





Orain dela zenbait urte, guztiok gogoan di-
tugun arrazio kultural eta politikoengatik gazte-
laniaz euskaraz baino okerrago mintzatzeak euskal-
dun asko lotsa erazten zuen.


Gaur zorionez, bestelakoa da egoera. Are
gutxiago, jendearen zenbait sektoretan erabat al-
datu da sentimentu hura, euskaldun berrien artean
erdiak baino gehiago euskaraz ez egitearen lotsa
sentitu dute.

Gure gizartean egon dira aldaketak, lotsa h-
artatik harrotasuna eduki arte. Gaur egun euskal-
dunek exigitzen dutena Euskal Herrian lan egiten
duten eta bizi diren euskaldunentzat euskera bizi-
tzeko eskubidea da.


Euskaldun berriek pertsona ezezagunaren aurrean
hizkuntza bat (euskara ala erdera) erabili ohi du-
te. Berriek, berriz, gaztelania nahiago dute (behe-
ko mailakoak) eta are gehiago goiko mailakoa izaten
bada, baina lagun hori gutxi zein oso ezaguna izan
maila berdintsukoa izaten bada euskaldunek euskeraz
egiteko iniziatiba handia dute.

Euskaldun zaharret, euskaldun berriekiko di-
tuzten aurreiritziak, zalantzak eta beldurrak uxat-
tu behar dituzte; euskaldun berriek, berriz, lehen
pauso hori emateko beldurra kendu behar lukete.

Aipatutako aldagai sozial hori azkoz sakona-
goa da zaharrengan berriengan baino.



Hegazkin hau egiteko kartulina bat behar duzu. Hemen dituzun zati hauek pinta itzazu. Puntuetatik (....) plegatu behar dituzu eta barruko lerroak (---) moztu.



Atzean bi pieza dituzu (A eta B). Etzanda doana A da. Bere gainean zutik B. Guzti hau egiterakoan ez ahaztu kontrapisu bat jartzea (beruna bat) hariaz lotuta.

Aholkuak: Hegazkina bat batean erortzen bada, kontrapisu gehiegi dauka edo direkzioa gaizki ipinita dauka.

Zuzen joateko: Ak dauzkan aleroiak ez mugitu.

Gora joateko: Ak dauzkan aleroiak mugitu gorantz.

Goitik behera: **1** Fruitu haundi bat. Haurrak asko maite dituenak. **2** Zerbait. Aldrebez, letra izena. Aldrebez, denok zapaltzen duguna. **3** Konsonantea. Nafarroako herri txiki bat. Konsonantea. **5** Uretan hil. Errepikatuz haurrek ibiltzen ikasteko erabiltzen duten tresna. Atzerriko kamioiek daramaten ikurra. **6** Sustrai. Montserrat izeneko idazle famatua. **7** -- Euskaltzaindiaren erdal izenaren lehen hitza. Aldrebez, laga. **8** Nafarroako alderdi bat. Aldrebez, -- Euskadiko egunkari bat. Erromatar erara "3". **9** Nota musikala. Indarrez zerbait aurrera eraman, infintiboan. Konsonantea errepikatua. **10** Konsonantea. Munduko ibadirik luzeena. Konsonantea. **11** Aldrebez, denbora, epea. Aldrebez, diptongoa. Aldrebez, barazki bat. **12** Ibili aditzaren flexioa. Euskadiko antzerki talde bat.

Figure 1 is a 12x12 grid representing the distribution of 100 points. The points are scattered across the grid, with a higher density in the lower-left quadrant. The grid is labeled with numbers 1 to 12 on both the top and left sides.